

Berotegi-efektua eragiten duten gasetan nire aztarna ekologikoa murriztuz

Zenbat planeta behar ditugu gure bizimodua mantentzeko?



Beharrezkoa da lurraldea ekologikoki produktiboa izatea (laborantzak, larreak, basoak edo ur-ekosistemak), erabiliko diren baliabideak produzitzeko eta hiriak sortutako hondakinak asimilatzen.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

AGENDA 2030



 **GARAPEN
IRAUNKORRERAKO
HELBURUAK**



ZER DA AZTARNA EKOLOGIKOA?

Aztarna ekologikoa ingurumen-adierazlea da, giza komunitate, herrialde, eskualde edo hiri jakin batek bere inguruan eragiten duen inpaktua neurtzen duena. 1996 urtean definitu zuten William Rees eta Mathis Wackernagel-ek.

Aztarna ekologiko indibiduala nabarmen aldatu egiten da faktore ezberdinen arabera, hala nola, herrialdearen, kontsumitzen diren ondasun eta zerbitzu kantitatearen, erabilitako baliabideen eta ondasun zein zerbitzu horiek emateko sortutako hondakinen arabera.




NOLA KALKULATZEN DA AZTARNA EKOLOGIKOA?

Aztarna ekologikoa kalkulatzeko metodologiaren oinarria dira elikadurari, baso-produktuei, gastu energetikoari eta lurzorua okupazioari lotutako kontsumoak asetzeko beharrezko azalera. Azalera horiek hektarea globala per cápita (gha/cap) terminoetan adierazten dira, hau da, biologikoki produktiboak diren azaleraren hektareatan (mundu mailako produktibitatearen batz bestekoaren parekoa). Horri esker, herrialde, eskualde eta abarren arteko konparaketak egin daitezke.

ZER DA DEFIZIT EKOLOGIKOA?

Defizit ekologikoa leku jakin batean erabilgarri dagoen azaleraren (karga-gaitasuna) eta kontsumitutako azaleraren (aztarna ekologikoa) arteko ezberdintasuna da.

Iraunkortasunaren esparruan, gizarte baten azken helburua izan beharko litzateke karga-gaitasuna gainditzen ez duen aztarna ekologikoa edukitzea, eta, beraz, defizit ekologikoa zero izatea.



Aztarna ekologikoaren kontzeptua bio-gaitasunarekin (edo karga-gaitasunarekin) lotuta eta kontrajarrita dago. Tokian tokiko material biologiko baliagarriak produzitzeko eta gizakiek sortutako hondakinak xurgatzeko gaitasuna da bio-gaitasuna, luraren produktibitatea eta bioaniztasunaren kontserbaziorako %12ko erreserba kontuan hartuta. Lursail bati ezar dakioken gehieneko ustiaketa da, produktibitatea behin betiko kaltetu gabe. Gizadiaren aztarna ekologikoak luraren bio-gaitasuna %50ean gainditu zuen 2008 urtean. Pertsona bakoitzeko bio-gaitasunak behera egin du, 1961ean 3,2 hektarea global (gha) izatetik, 2008 urtean 1,8 gha/pertsona izatera igarota, nahiz eta epe horretan bio-gaitasun globalak gora egin.

Gizarte industrializatuetakoko egungo aztarna ekologikoak Biosfera osoaren karga-gaitasuna gainditzen du eta horrek mundua eutsiezin egiten du: kanpo-pobreziaren gorakada, desoreka geopolitikoen baliabide eskasia... dira horren adibide garbiak.


BIZKAIKO AZTARNA EKOLOGIKOA

Bizkaian Milurteko Ekosistemen Ebaluazioaren esparruan, Bizkaiko aztarna ekologikoa kalkulatu izan da eta 2007 urterako emaitzak aztertu. Adierazle erantsi horren bidez erakutsi zen Bizkaian, eskualde garatu guztietan bezalaxe, lurraldeko bio-gaitasunaren gainetik kontsumitzen zela. Horrek argi uzten du Bizkaiak zer nolako menpekotasuna duen lurraldetik kanpoko ekosistemek sortzen dituzten zerbitzuekiko.

Aztarna ekologikoaren kalkuluan denbora-eskalak duen garrantziaren ondorioz, adierazle hau plazaratu ondoren, interes handikotzat jo zen azterketa sakontzea, denbora luzeagoan izango lukeen bilakaera eta joera ezagutze aldera. Horrela, 2012 urtean 2000-2010 tarterako aztarna ekologikoaren analisia egin zen eta adierazle sektorialen bateria osatu zen, ekimen eta neurri zehatzak martxan jartzea ahalbidetzeko.



Bizkaiko aztarna ekologikoaren eta bio-gaitasunaren bilakaera (2000-2011 urte tartea)



Iturria: Bizkaia Lurralde Historikoko aztarna ekologikoa 2011 eta kalkulu horretan erabilitako parametroen azterketa (Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian).

Gaur egun, Bizkaiko aztarna ekologikoaren urteko kalkuluarekin jarraitzen da, baita 2011 urterako adierazle sektorialen analisiarekin ere. Horrela, Bizkaiko iraunkortasunaren bilakaera eta ezarritako neurri zein politiken eraginkortasuna etengabe aztertzea ahalbidetuko da.

Bizkaiko aztarna ekologikoak beherako joera hasi zuen 2006 urtean, azpimarratzekoa da 2008-2009 denboraldia, 1gha/pertsona inguruko beherakadarekin. Aztertutako azken urtean, aztarna ekologikoa murrizteko joera indartu da eta, horrekin batera, defizitaren beherakada. Azpimarratzekoa da 2011rako Lurralde Historikoko bio-gaitasunak izandako gorakada, larreen kalterako, CO₂ xurgapen eremuan azalera produktiboek (laborantzak eta basoak), gora egin baitute eta sortutako hondakinek (26.356 tona gutxiago), zein kontsumitutako energiak (187.594 tep gutxiago), behera.

Beraz, Bizkaiko zein mundu osoko egungo belaunaldiei bizi-kalitate bidezkoagoa eta hobea bermatuko dien planeta batekin orekan, garapen iraunkorra lortzeko aurrera egin nahi badugu, (datozen belaunaldien garapena kolokan jarri gabe) ezinbestekoa da aztarna ekologikoa murriztea eta azken urteetan erregistratutako joerari jarraipena ematea.

NOLA MURRIZTU DEZAKEGU AZTARNA EKOLOGIKOA?

Mugikortasun iraunkorra

Biztanleen CO₂ isuri nagusiak erregai fosila behar duten motordun ibilgailuek eragiten dituzte. Erregai horiek berotegi-efektuko gasak isurtzen dituzte (karbono dioxidoa, oxido nitrosoa eta sufre dioxidoa) eta, aldi berean, gas horiek lurreko tenperaturaren gorakada eragiten dute.

Distantzia handiko ibilbideetan garraio publikoa erabiliz gure karbono aztarna murriztuko dugu, gainera, kotxe kopurua murriztuko dugu errepideetan eta, ondorioz, auto pilaketak saihestu.

Kotxez egiten diren ibilbide laburrak izaten dira kutsadura iturri nagusiak eta, aldi berean, saihesten errazenak dira. Erraza da: oinez ibili eta hartu autoa oinez egin ezin daitezkeen ibilbideetarako.

Ibilbide ertainetan bizikleta erabiliz, iraunkorra izateaz gain, ariketa fisikoa egingo dugu, osasuna hobetzeko komenigarria.



Berrantolatu zure etxea: autosufizientea eta energiari dagokionez eraginkorra

Berogailuak eta gailu elektrikoek energia kontsumitzen dute eta energia ekoizteak berotegi-efektuko gasak isurtzen ditu, hori dela eta, gure kontsumoa murriztuta, gure aztarna ekologikoa ere murriztuko dugu, baita gure fakturen zenbatekoa ere. Hausnartu energia berriztagarriak erabiltzeko aukeraren gainean. Kontratatu «energia berdea».

Etxea egokitu: hormak, sabaiak eta zoruak isolatuta, energia gutxiago behar da neguan etxea berotzeko eta udan hozteko. Kontsumo txikiko eta iraupen handiko argiak ere erabil daitezke eta gailuen «standby» egoera saihestu, energia kontsumoa murrizteko. Gutxitu kontsumoa, kontsumo iraunkorragoa eginez.

Murriztu zure aztarna ekologikoa elikaduran

Inportatutako produktuak kontsumitzeak eta ontzi gehiegi erabiltzeak ingurumen-inpaktu handia eragiten dute, hau da, berotegi-efektuko gas ugari eta beste produktu toxiko batzuk isurtzen dituzte.

Inportatutako produktuak erosi beharrean, tokiko produktuak erositara, atmosferara CO₂ gutxiago isurtzen da, izan ere, produktuak banatzeko garraioa murrizten delako. Gainera, tokian tokiko ekonomia sustatzen da eta, horrela, herrialdeko ekonomia hobetu.

Haragi kontsumoa murriztu eta barazki gehiago jan; haragi kilo bat produzitzeko lursail handiagoak behar baitira, eta barazki kilo bat produzitzeko lur emankorra eta ura, besterik ez.

Erosi solteko salgaiak eta saihestu ontzi gehiegi dutenak. Plastikoko ekoizpenean isurtzen den CO₂ eta hondakin kopurua gutxitzen dira.

Murriztu ur kontsumoa

Bainua beharrean dutxa hartzea, behar ez denean txorrota ixtea, tantak darizkion iturriak konpontzea, dutxetan, komunetan eta txorrotetan murriztaileak erabiltzea eta sukaldean erabilitako ura landareak ureztatzeko aprobetxatzea. Horiek guztiak neurri errazak dira gure aztarna ekologikoa murrizteko eta ingurumen inpaktu globala murrizteko.

Murriztu zeure hondakinak

Produzitutako hondakin kopurua gutxitzeak gure aztarna ekologikoa murrizten du. Honako neurri hauek har daitezke: produktu iraunkorragoak erostea, «erabili eta botatzeko» produktuak saihestea edo bilgarri gutxiago daukaten produktuak aukeratzea.

PARTE HARTU AKTIBATU+ PROGRAMAN

Aktibatu + programak parte-hartze aktiboa sustatzen du, familien parte-hartzea euren etxeetan eta ikasleena ikastetxeetan. Horretarako, programa bukatutakoan, erosketan hondakinak, ura, energia eta mugikortasun gaiak jorratzen dituzte.

Aktibatu + programa bi plan ezberdinen bitartez gauzatzen da: Ikastetxeak eta Etxeak. Bizkaia Lurralde Historikoko gainontzeko eskualdeetara zabalduz joango da.

Zure eskualdera heltzen denean informazioa eskuratuz, modu iraunkorragoan bizitzen ikasiko duzu. www.bizkaia21.net

ONDORIOAK

Industrializatutako eskualde gehientxonek bezalaxe, Bizkaiko aztarna ekologikoak lurraldeko bio-gaitasuna gainditzen du eta, horregatik, defizit ekologikoa dauka. Horrek esan nahi du egungo garapeneredua, kontsumo-ohiturak eta bizimodua eutsiezinak direla. Bizkaiko aztarna ekologikoa zehazten duten faktore guztietatik, CO₂ isuria da pisurik handiena duen faktorea, kontsumo ondasunak inportatzearekin lotutako isuria kopurua batez ere. Beraz, CO₂ isuri kopurua murriztuta, aztarna ekologikoa ere murriztuko dugu aldi berean.



GEHIAGO JAKITEKO

- Bizkaia 21 web ataria. Iraunkortasun pertsonala: Aktibatu: Zure Aztarna Ekologikoa.
- Planeta Bizia Txostena 2012, Bioaniztasuna, bio-gaitasuna eta etorkizunerako proposamenak.
- Ecological Footprint Atlas 2010.
- Euskal Autonomia Erkidegoko aztarna ekologikoa.
- Bizkaia Lurralde Historikoko aztarna ekologikoa 2011 eta Kalkulu horretan Erabilitako parametroen azterketa.
- www.vidasostenible.org
- Bizkaia 21 ataria: Jardunbide Egokien Dekalogoak